InfoBilbao BilbaoLan Ekintza

PRENTSAKO OHARRA

# LAN EKINTZA-BILBAOK "B Creative" PLAN BERRITZAILEA AURKEZTU DU, BILBON EKONOMIA SORTZAILEA SUSTATZEKO

- Plan honek hiriaren garapen-estrategiarako gako gisa kokatu nahi du sormena, ekonomia sortzailea bultzatzera zuzendutako zenbait neurriren bidez.
- Bilboko industria sortzaileak % 3 hazten dira urtean, hiriko enpleguaren % 5 biltzen dute, eta, horien artean, besteak beste, artearekin, diseinu industrialarekin, goi-mailako gastronomiarekin, modarekin edota zinema, musika, telebista eta publizitatearekin lotutako enpresak daude.
- "B Creative" 2011 eta 2013 bitartean garatuko den plan bat da, eta lau helburu nagusi ditu, hamaika neurri eta jarduketa-lerrorekin. Plana garatzeko, milioi bat euro inguruko inbertsioa egingo da.

Bilbon, 2011ko otsailaren 4an

Lan Ekintza-Bilbaok Bilboko Ekonomia Sortzailea bultzatzeko "B Creative" Plana aurkeztu du gaur. Proiektu honek hiriaren garapen-estrategiarako gako gisa kokatu nahi du sormena, berrikuntzari sostengua emateko, enpresetan eta biztanlerian sormen-gaitasunak garatzea sustatzeko eta Bilbon sormenaren arloan garatuko diren ekimenak bultzatzeko zenbait neurriren bidez.

Industria sortzaileak jatorria sormenean eta talentuan daukaten eta enplegua eta aberastasuna sortzeko potentziala duten enpresak dira. Lan Ekintza-Bilbaok egindako "Bilboko enpresa sortzaileen potentzialari buruzko azterlanak" enpresa sortzaileekin lotutako hamalau jarduketa-sektore biltzen ditu: Publizitatea; Arkitektura eta Ingeniaritza; Artea eta Zaharkin Merkatuak; Artisau-lanak; Diseinu Industriala; Goi-mailako Gastronomia; Moda Diseinua; Zinema eta Bideoa; Entretenimenduko Software Interaktiboak; Musika; Antzezpen Arteak; Edizioa; Softwarea eta Zerbitzu Informatikoak; eta Telebista eta Irratia.

"Sektore hau gure enpresentzako aukera-nitxo bat da, eta sinetsita gaude Bilbo sormenaren arloko erreferentziazko hiri bihurtzeko gaitasun handia dutela" adierazi du Jon Sustatxak, Bilboko Udaleko Enplegu, Gazteria eta Kirol Saileko Zinegotzi Delegatu eta Lan Ekintzako Lehendakariak.

2011 eta 2013 bitartean garatuko den planak lau helburu estrategiko ditu, zeinetan hamaika jarduketa-lerro bereiz daitezkeen, eta horietan 25 neurri, batzuk tokiko izaerakoak eta beste batzuk kanpora zuzendutakoak. Neurri horietako batzuetan, Eusko Jaurlaritzak bere lankidetza eskainiko du.

## Helburuak eta hartzaileak

"B Creative" planak lau helburu nagusi ditu: Enpresa eta ekimen sortzaileen

garapenari sostengua ematea; Bilboko enpresen multzoan sormenaren eta berrikuntzaren garapenari sostengua ematea; Sormen-talentua duten pertsonei balioa ematea eta horiek atxikitzea eta erakartzea; eta Bilbok hiri sortzaile gisa duen posizionamendua areagotzea.

Plan horren hartzaileak hiritar guztiak, enpresak eta agente sozial eta ekonomikoak diren arren, bereziki sektoreko balio-katearen barruko etapa sortzaileenean zentratuta dauden sektore kultural eta sortzaileen barnean kokatzen diren ekimenei zuzenduta egongo da.

Lan Ekintza-Bilbaok plan horren garapena hiriko agente nagusien parte-hartzearekin bultzatu nahi du: pertsona sortzaileak, enpresak, sormenarekin eta kulturarekin lotutako erakundeak, enpresa-elkarteak eta bestelako erakundeak. Garapenean, milioi bat euro inguru injektatuko dira, sektorerako eta bere enpresetarako askotariko laguntzez gain.

UDALA · AYUNTAMIENTO
Prentsa Kabinetea – Gabinete de Prensa Lan Ekintza
Tfn: 94 420 52 15 / 688 88 02 28